




## HERIOTZA BAGOI BATEAN

**ARIKETA-ORRIA**

**BATXILERGOKO 1. MAILA  
(MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA)**



CENTRO MEMORIAL DE LAS  
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO  
TERRORISMOAREN BIKTIMEN  
OROIMENERAKO ZENTROA

## HELBURUAK

- + Muturreko indarkeriaren (hala nola, terrorismo oro) helburu izateak zer esan nahi duen hausnartzea.
- + Indarkeria bidegabearen erabilera maltzurraz eta biktimengan eragiten duen min bidegabeaz eztabaidatzea.
- + Biktimen sufrimendurekiko enpatiazko jarrera sustatzea, kasu honetan terrorismo jihadistarenak; bai M-11n izandakoak, bai Bartzelonako eta Cambrilseko atentatueta edo munduko beste leku batzuetan izandakoak.
- + Maribel Presaren testigantzak aztertuta, eztabaida eta iritzi-trukea sortzea taldean, ekintza hori egiteko gai izan zenari inokulatu behar izan zioten fanatismoaren eta gorrotoaren ondorioei buruz.

## GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, ezinbestekoa izango zaizu jarduera egiteko, bai ulermenezko irakurketa, baita laburbiltzeko eta ahozko adierazpen egokiarekin aurkezteko gaitasuna ere.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu ahal izango baituzu.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetza baketsuaren alde egiteko.

## DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 45/50 minutuko modulu baterako pentsatuta dago.

## BALIABIDEAK

Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta smartphoneak edo tabletak bezalako gailu mugikorrak erabiltzeko aukera.

## EGILEA

Jesús Prieto



**Terrorismoa:  
“Borrokalaria ez  
diren pertsonen aurka  
erabiltzen den indarkeria  
klandestino, indarkeria  
egiten dutenen helburu  
politikoen aldeko beldur  
giroa sortzeko, edo  
gobernu baten edo  
nazioarteko erakunde  
baten erabaki bat  
behartzeko”.**

*Juan Avilés Farré*



*Bagoietako baten egoera, Madrilgo Atochako geltokian, 2004ko martxoaren 11ko goizeko lehen orduan izandako leherketen ostean, guztira 192 hildako eta ehunka zauritu eragin zituztenak. Sergio Barrenechea, EFE.*

## HERIOTZA BAGOI BATEAN

Maribel Presa Carlos Alberto Garcia Presaren ama da, 24 urteko gaztea, ICEXeko funtzionarioa, eta 2004ko martxoaren 11n erail zuten Madrilén. Maribelen testigantza kontakizun bihotz-urratzailea da, erloju bat, minutu batzuk, tren bagoi bat, lehergailu bat... Horiek guztiek errugabe bat hil eta familia oso baten zoriona agortu zuten.

"Carlos Alberto nire semea Atochako trenaren bagoietako batean hil zen. Egunero bezala, agur egin nion igogailuko eskailburutik. Sukaldeko erlojuari begiratu nion. Eta hori oso tinko geratu zitzaidan, zeren beti zazpiak eta hamar aldera alde egiten baitzuen, eta hilaren 11n zazpiak eta bat minutu ziren, eta neure artean esan nuen: Arranopola, laster joan da mutil hau. Eta, tira, nik neure burua prestatzen jarraitu nuen. Hemengo, Cosladako, institutu bateko atezaina naiz; zortziak eta laurdenetan sartzen naiz eta zentroko egunkariak biltzen ditut lehenago. Lanera iritsi nintzenean, ezkaratzetik sartzen ari nintzela, nire kideak esan zidan: "oso pozik zatoz zu, ez dakizu zer gertatu den?". Dena oso nahasia zen oraindik, goizeko zortziak eta laurden ziren. "Bonba batzuk jarri dituzte gure tren linean". Nik eskuak burura


eraman eta, ezer jakin gabe, neure buruari esan nion: "Nire semea, hil egin didate!" Nire senarrari deitu nion, erretiroa hartuta baitago, lanera deitu genuen, eta lanera ez zen iritsi, noski, ez bera, ez beste bi kide, gero ere hil zirenak.

Alaba bat nirekin bizi da, 34 urtekoa, beste bat Madrilén bizi da, hainbat ospitaletara joan ziren, bata ospitale batzuetara, bestea beste batzuetara, eta ezer ez. Jada ordu biak eta erdietan, IFEMARA joan behar zela ziotenez, hara abiatu ginen.

Eta hilaren 11ko ordu bi eta erdietatik aurrera, ordu horretan sartu baikin, ni ez nintzen semearen gorpuarekin irten 13ra arte, goizeko ordu batean. Ia 48 ordu eman genituen ezer jakin gabe. IFEMAn igaro genuen denbora, denok gogoratzen dugu, han egotea zen, eta SAMURreko pertsona bat ateratzen zen, eta zenbait minutuz behin izen batzuk ematen zituen, eta zuk bazenekien zer zen. SAMURrekoa ikusten zenuen bakoitzean ikaratu egiten zinen, bazenekien zertarako zen. Tira, gaur egun SAMURreko anbulantzia bat ikusi, eta gaizki jartzen naiz, dohakabeek bizitzak salbatuko dituzte, baina ni gaizki jartzen naiz. Egundik aurrera izugarrikeria batean murgilduta gaude. Lehen hilabeteetan nebulosa batean zaude, uste duzu oraindik giltza atean sartuko dutela, etorriko direla... baina okerreina orain da. Eta geratzen dena, geratzen dena!"<sup>1</sup>

<sup>1</sup> Espainiako Terrorismoaren Biktimen Artxibo Historikoa, Terrorismoaren Biktimen Fundazioa eta Miguel Ángel Blanco Fundazioa.





2004ko martxoaren 11n Atochan (Madril) izandako atentatu jihadistaren biktimei omenaldia. KarSol, Shutterstock.

## IRADOKITAKO JARDUERA

Aurreko testua irakurri ondoren, talde-lan bat eskatuko dizugu, modu kooperatiboan garatu beharrekoa. Hainbat dokumentazio-iturritara joanda egin dezakezu, baina hemen Internet bidezko bilaketa bat egitea gomendatzen dizugu, gaitasun teknologiko eta digitala ere lantzeko.

1

**Bost laguneko taldeak osatuko ditugu. Maribel Presaren testigantza ozen irakurriko du taldeko kide batek. Horretarako, irakasleak irakurketari hasiera emateko keinua egingo du, eta hura amaitutakoan, isilean, bi minutu utziko dira banakako hausnarketarako. Ondoren, sentimenduetatik eta emozioetatik, ama honen testigantzari buruzko hausnarketak idatziko dira.**

2

**Gogoeta pertsonala amaitutakoan, taldearen ikerketarako epealdi bat irekiko da. Talde bakoitzak bost galdera hauetako bat lantzea eta erantzutea aukeratu beharko du:**

- Nola gertatu ziren M-11ko atentatuak Madrilén?
- Zer dakizu 2005eko uztailaren 7ko Londresko atentatuei buruz?
- Gogoratzen 2015eko urtarrilean Charlie Hebdo astekariaren aurkako atentatuaren inguruabarrak?

3

**Badakizu ezer 2015ean Parisen Bataclan Aretoari egindako erasoari buruz?**

- Esango al zeniguke ezer Bartzelonan eta Cambrilsen 2017ko udan izandako atentatuei buruz?

4

**Taldeko kide bakoitzak bere kabuz ikertu eta taldeari informazioa eman beharko dio. Horrela, guztien artean egiaztatutako datuekin osatu ahal izango dute gertatutakoa. Taldeko bozeramaile bat izendatuko da, gertaerak nola eta zein egoeratan jazo ziren azaltzeko.**

**Jarduera amaitzeko, gogora ekarriko dugu arabiar munduko leku askok "talde jihadistaren" antzeko atentatuak jasan dituztela eta biktima asko izan direla. Nahi izanez gero, gela-taldeari eskatuko zaio atentatuen, testuinguruen eta tokien biktimek jasandako sufrimenduari buruz duen iritzia azaltzeko. Zure ustez, haien sufrimendua desberdina da? Biktima guztiak berdinak al dira?**

**Jarduera musika leun batekin amaituko da (J. S. Bachen Bi biolinenzako kontzertua izan daiteke), eta une hori bakearen kultura aldarrikatzeko eta banakako hausnarketarako gonbidapen gisa erabiliko dugu. [https://planetamusik.com/blog/mejores-obras-musica-clasica/#Johann-Sebastian\\_Bach\\_1685-1750](https://planetamusik.com/blog/mejores-obras-musica-clasica/#Johann-Sebastian_Bach_1685-1750)**